

## 4. MODULUA. JOLASA: EB GURE EGUNEROKO BIZITZAN

### IKASLEENTZAKO GALDERAK

	IKASLEENTZAKO GALDERAK	ERANTZUNA	AZALPENA
1.	Zein maila politikok erabakitzen du autobietako abiadura-muga?	Ez du EBk egiten.	Trafiko-arloko arauak desberdinak dira Batasuneko estatu kide bakoitzean; adibidez, Irlandan, Maltaan eta Zipren errepideko ezkerretatik gidatzen da. Hala ere, trafiko-kodeak Europa mailan koordinatzen dira, eta gidari europarren gidabaimena Batasun osoan da balioduna.
2.	Zein maila politikok zehazten du <b>bi urteko gutxieneko bermea</b> daukazula ordenagailu eramangarri berria erosten duzunean?	EBk.	Kontsumitzaileen babesa: EBko legeriaren arabera, fabrikatzaileek gutxienez bi urteko bermea eskaini behar dute gailu elektronikoetarako, hala nola telefono adimendun, inprimagailu, ordenagailu eramangarri, xurgagailu, kafegailu eta abarretarako.
3.	Zein maila politikok erabakitzen du noiz biltzen den zaborra?	Ez du EBk egiten.	Nagusiki toki-mailak erabakitzen du noiz biltzen den zaborra. Guztiz zentzuzkoa da: zabor-bilketaren arduraduna Batasuna izango balitz, anabasa sortuko litzateke, ez dagoelako hiri bakoitzaren behar zehatzak ezagutzeko moduan.
4.	Zein maila politikok erabakitzen du freskagarri-latetan ikusten duzun informazioa (osagaiak, kaloriak, ekoizlearen harremanetarako informazioa, etab.)?	EBk.	Kontsumitzaileen babesa: herritarrek kontsumitzen dituzten produktuei buruzko informazio zuzena eta osoa edukitzea nahi du EBk. Horregatik, elikagaiek eta produktu kosmetikoen informazio jakin bat jaso behar dute etiketat, adibidez, osagaiak eta fabrikatzailearen izena.
5.	Zein gobernu-mailatan zehazten dira zure telefono adimendunak bete behar dituen segurtasun-arauak?	EBn.	Merkatu bakarra eta kontsumitzailearen babesa: EBk zehazten du Europako Ekonomia Esparruaren (EEE) barruan saltzen diren produktu etarako segurtasun-arauak.
6.	Zein-maila politikok erabakitzen du ikasturte akademiko bakoitzaren amaieran ikasita eduki behar duzuna?	Ez du EBk egiten.	Batasunak ez du zehazten nola antolatzen diren hezkuntza eta haren edukia. Ondorioz, amaierako ikaskuntza-helburuak desberdinak dira Batasuneko estatu kide bakoitzean (eta, batzuetan, eskualdez eskualde ere aldatzen dira).
7.	Zein maila politikok dauka munduko eremu gatazkatsuetara tropak bidaltzeko eskumena?	Ez du EBk egiten.	Batasunak ez dauka armadarik. Kanpo- eta defentsa-politika eskumen nazionala da. Hala ere, estatu kideak misioak Europa mailan koordinatzen saiatzen dira, baita NATOren barruan ere.
8.	Zein maila politikok zehazten du lanaldi osoko langileek urtean 20 eguneko atseden eduki behar dutela gutxienez?	EBk.	EBko lan-denborari buruzko zuzentarauak, zeina hasiera batean 1993an onartu baitzen, «urtean gutxienez lau asteko oporraldi ordaindua» izateko eskubidea ematen die langileei. Sektore edo estatu kide bakoitzak eskubideak ematen duen egun-kopurua handitu dezake, baina gutxienekoa hogeita egun dira.
9.	Zein maila politikok zehazten ditu gidarien prestakuntzarako baldintzak eta gidatzeko azterketa gaitzeko bete behar diren baldintzak?	Ez du EBk egiten.	Batasunak baldintza horiek zehazten ez dituen arren, zure gidabaimena Batasun osoan balioduna da berehala eta Europako formatu estandarra dauka.

10.	Zein gobernu-mailatan sartuko da erabili eta botatzeko plastikoen debekua, adibidez, erabilera bakarrek mahai-tresnei eta plastikozko lastoei dagokiena, 2021etik aurrera?	EBn.	EBk onetsitako lege berri batek erabilera bakarrek plastikozko artikulua debekatzen ditu, adibidez, platerak, mahai-tresnak eta erabili eta botatzeko lastoak, baita kotoi-txotxak ere.  Debekua 2021etik aurrera sartuko da indarrean.
11.	Zein gobernu-mailatan zehazten da iturri berriztagarrietatik, adibidez, eguzkitik edo haizetik, datorren energiaren kuotari dagokion gutxienezko helburua?	EBn.	Erregai fosiletatik energia garbiagoranzko trantsizioa errazteko eta Parisko Akordioako konpromisoak betetzeko asmoz, EBk helburu lotesle hau ezarri du: gutxienez EBko energia-konbinazioaren % 32 energia-iturri berriztagarrietatik etorriko da 2030era arte. Ehuneko hori estatu kide bakoitzaren egoeraren arabera aldatzen da.
12.	Zein maila politikok hartzen ditu zure etxebizitza eraikitze baimenari buruzko erabakiak?	Ez du EBk egiten.	Nagusiki toki-agintariak ematen dituzte etxebizitza pribatuak eraikitze baimenak.
13.	Zein maila politikotan ordaintzen dituzu zergak?	Ez da EBn egiten.	Batasunak ez du zergarik biltzen herritarrengandik zuzenean. Estatu kide bakoitzak kopuru bat ordaindu behar dio urtero Batasunari, alegia, Europako aurrekonturako kontribuzioa.
14.	Zein maila politikok hartzen ditu jaiegunei (datei eta egun-kopuruari) buruzko erabakiak?	Ez du EBk egiten.	Estatu nazionalak hartzen dituzte eskuarki erabaki horiek.
15.	Zein maila politikok zehazten ditu airean baimentzen diren partikula finen gehieneko kopurua?	EBk.	Batasunak ingurumen-neurrietako asko zehazten ditu, adibidez, ibai, aintzira eta itsasoetako uraren kalitatea.
16.	Non erregistratu behar duzu zure ezkontza?	Ez da EBn egiten.	Nagusiki toki-agintariak arduratzen dira biztanleriaren eta egoera zibilaren erregistroaz.

